

Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

P U L U N P E



Aurkibidea

3 AMETZABERRI

4 AGENDA
5 SU PINTERRAK

6-7 ERREPORTAIA
8-9 MARTXOKA 8
10-11 ALBISTEAK

12 KONTU KONTARI
13 IRRATI KONTUAK
14-15 EKIMENAK
16-17 SALTSA PURRUSTA

18 DATORRENA DATORRELA
19 BERRIKETAN

20-21 ASPALDIKO KONTUAK

22-23 BERRIKETAN

24 ZER IKUS, ZER IRAKURRI

25 ARDO FREXKOTIK
26 TXIKIAK HANDI ETA
GURE ANIMALIAK
27 HEMEN, HOR, HAN

28 URRUNERA JOAN GABE
29 URTEBETETZEAK
30-31 BITXIKERITAN



Iraizotz 80. Paseo bat emanez.

Alkotz: 65 Jauni Barberenak. Lozen Alkozkoa egiten da eta honek banatzen du.

Arraitz: 50 Ez dakigu nork

*Paseo bat emanez eta, bidez batez, jendearekin ego-
nez.*

*Autoz ere egin behar izaten ditu zenbait etxe, herritik
urrun direlako, adibidez, Tufarreta.*

Aritzura ere eramaten du paketa.

Gure langile anonimoak

Zenbat lan eta zenbat auzalan. Gure herrian horrela ibili beharra dago. Eta ez da txarra, denok denon alde zerbait egitea, horrek egiten gaitu solidario, eta horrek ere egiten gaitu herri, Euskal Herri. Pulunpen ere horrela gabeiltza: askoren eginahalen truke ateratzen dugu hilero-hilero. Hasi antolatze lanetatik (Administrazio guzia, aurrekontuak eta kontuak barne) Segi erredakzio lane-
tik (Idatziak, fotografia, berriak...) eta segi banaketa lanetik, etxek
etxe banatu behar baitugu.

Gaurkoan azken kontu hau aipatuko dugu. Herri guzietan hainbat eta hainbat langile boluntario ditugu lan hau egiten dutenak eta gaurkoan denak hemen sartzeko lekurik ez eta bat aipatzearren, Nicasio Doray dugu aipatuko, Iraizotzen bizi den gizasemea, Landaxenean. Hurrengo aleetan beste gainerakoak ateratzen segituko dugu. Nicasio, hilero-hilero, Iraizotzko 80 etxeetara eramaten du Pulunpe, oinez tipi-tipa.

-Nicasio, hilero-hilero 80 etxeetara Pulunpe banatu beharra.

-Bai, bai, 80 etxeetara. Eta gustura gainera, ordu pare bat behar izaten diat. Batzuetan gehiago, norbaitekin eta hizketan gelditzen naizenean. Eta esana, pozik egiten diat.

-Dena oinez.

-Herritik aparte ere badizkiat zenbait etxe, Tufarreta eta bes-
teren bat. Horietara autoz joaten nauk.

**-Gero beste herriren batzuetara ere eramaten dituk Pulunpek
han bertan beste norbaitek banatzeko, ez?**

-Bai, Alkotza eta Arraitza nik eraman eta han beste batzuk
banatzen ditiztek. Eta Aritzura ere nik eramaten dizkiat

-Besterik gehitu nahi duk?

-Ni oso pozik ibiltzen nauk. Gure herritxo hauen alde egin be-
harra zegok zerbait. Denok egin behar diagu zerbait, eta gehiago
euskara tartean baldin bazegok. Egoera ikusirik denok gure aha-
legina egin beharrean gaudek.

***Aupa Nicasio! Jende finen beharra bazegok hemen eta no-
nahi ere!***



*2013-03-02 Hemen dugu Nicasio sukaldari lanetan,
Lizasoko elkartean, kantu afari batean. Hemen ere
auzalanean gure Nicasio. Aldamenekoa Gorka Erviti
dugu, Aritzuko Unindeneko semea. Hau arduratzen
da Aritzuko banaketaz.*

Pulunpek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

Argitaratzailea Ametza Kultur Elkartea

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Jule, Laia, Aina, Patxi, Oier, Goizargi, Inma, Izaskun, Ruben, Maitane, Lander, Alazne, Javi, Bakartxo, Maialen, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Jese, Ekaitz, Mentxu, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab...

Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Amaia Berdintasun teknikaria, J.J. Elizalde, Txurdan.

Koordinatzailea: Iosu Martinez Urdaci

Argazkiak: Txurdan, Facebook sareko jendea, Saltsa Purrueta eta Urtebetetzera bidaltzen duzenak eta beste asko.

Marrazkilaria: Joxe Jabier

Arazo teknikoak: Txin

Tirada 1.600 ale - Banaketa: Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzama

Inprimategia: gertu - Maketazioda: AMETZA - Lege gordailua: NA 721/93

948 305134 Euskara Zerbitzua
948 503232 Esan Erran irratia
948 305353 Kultur Animatzailea



HEMENTXE DUZU GURE AGENDA!

IKASTAROAK

AHOTS TAILERRA

Tailer hau eremu zabal eta libre bat eskaintzera dator gure ahotsa entzun eta lantzeko eta kantuaren bidez musikara hurbiltzeko, "ongi" abestera behartzen gaituen presio sozial horretatik aske. Tailerraren dinamizatzailea: Cristina Arozena
MAIATZEKO OSTEGUN GUZTIETAN
18:30etatik 20:00etara
Prezioa: 33€
Talde minimoa: 8 pertsona
IZENA EMATEKO: 948 305353 /ssbultzama.kgarces@infolocal.org

ABESBATZA TAILERRA ASTEAZKENETAN

20.30etatik 22:00etara
Martxoaren 20etik Maiatzaren 29ra
Patxi Martinekin
PREZIOA: erroldatuak 62

€, erroldatu gabeak 72 €
IZENA EMATEKO
948 305353 / ssbultzama.kgarces@infolocal.org

EKIMEN KULTURALAK:

Martxoak:

Martxoaren 22an Sonica musikari bikotearen kontzertua **LARRAINTZARKO BENTAN**, 19.00etan
Martxoak 22 aizarotzen "Nepal" pelikula

Martxoaren 26an **ASTEARTEA**, Ametza korralaren kontzertua, **LARRAINTZARKO BENTAN**, 19.00etan
APIRILAK 5, AROSTEGIN, 19.00etan: **SAHARA NO SE VENDE** dokumentala:

APIRILAK 12, LARRAINTZAR, 19.00etan:
Basamortuko irrifarreak: Ekimen solidarioa.

APIRILAK 19, LARRAINTZAR, 17:30etan **TXONTXONGILOAK**: Euskal mitologiako pertsonaiekin batera Sahara basamortu bidaiatuko gara.
APIRILAK 19, LARRAINTZAR, 19:00etan, **KONTZERTUA**: ensemble sufi, **NUR**

ERAKUSKETAK:

- "Emakume Sahararrak: Injustiziaren Aurkako Erronka": tokia konfirmatu gabe
- Sáhara: ahantzirik urtzi-tako gatazka bizia": Larraintzarren Gizarte etxean
"Saharaiak: ahantzitako herria": tokia konfirmatu gabe



Euskaldunon Egunkariaren itxieraren 10 urte bete zire-
notsailaren 20an. Egunkaria aldi baterako ixtea eta haren
ondasun guztiak bahitzea erabaki zituen ebazpen judizial
baten 10 urte. Justiziak, neurri batean, eman zituen
ekintza hori justifikatzeko arrazoiei buruzko ebazpena, it-
xiera horrek egin zuen kaltea gaur, behin eta berriro, go-
goratzea komeni den arren.

Euskal kulturaren munduak, oro har, euskarak, bereziki,
eta erasoak zuzenean eragindako Egunkariako langileek
guztiz bidegabea zen egoera baten ondorioak pairatu zi-
tuzten. Hamargarren urtemuga hori gertatu zena bezala-
koak berriro ez errepikatzea eskatzeko baliatu nahi dugu.



Elur- kentzeko makinen lana azaltzen

**Navarra.es webgunean egunero berritzen da makina hauen
lana eta errepideen egoera**

Gure eskualdean elurra nahiko normala baldin bada ere ,
negu honetan dexente ikusi dugu. Elur-kentzeko makinen lana
egun batzutan goizago eta beste batzutan beranduago ikusi da.
Zenbait arazo eta istripu egin dira gurean. Errepideen garbiketa-
ren kudeaketaz galdetu dugu eta hau da aurkitu duguna; alde
batetik zenbait herri eta konzejuetan herriko norbait da lan hau
hartzen duena; pala traktorean jarrita egiten du lana. Errepide
nagusietan, aldiz, Azysa enpresa da erantzunkizun hau duena;
beraien konpromezua da errepideak ahalik eta azkarren garbiak
izaten. Enpresa hau, gobernutik koordinatuak daudelarik.

Hala ere, Nafar Gobernuak Sustapen eta Lan Publiko Erre-
pide-zaintzako departamentuko burua den Tatiana Hercerekin
hitz egin dugu eta berak komentatu digu "ematen den kontrola"
osoa zehatza dela. "Alde batetik, aurtengo negua urtetan bizi
izan dugun gogorrenetakoa izan da, adibidez, Belaguan beder-
ratzi metro elur izatera ailegatu gara. Hala ere, egiten dugun
lana zabala da: ekintza protokolo batzuk ditugu; aurreko egu-
neko eguraldi aurreikuspenaren arabera prestatu egiten gara,
eta bi orduro informe berriak ditugu". Makinak banatu ondoren,
GPS baten bidez datu guztiak zuzenean monitorizatzen dituzte:
non daude, zenbat gatz daramten, zenbat botatzen duten, mu-
gitzen ari den, zein abiaduran... Bestetik, egunero bi lanaldi ez-
berdin dituzte, "goizeko bederatzietatik aurrera, eta bestea
gaueko bederatzietatik goizeko bostetara. Hala ere, aurren, eta
eroritakoa ikusita, gelditu gabe ari dira Elur-kentzeko makinak
lanean.

Herce deklaratzen duenez, "lanez gainezka gaude, baina
ematen den zerbitzua Estatu mailan hoberenetakoa dela azpi-
marratzen du: "beste Komunitate batzuei gustatuko litzaieke
hemen ematen dugun zerbitzua izatea".

Bukatzeko Sustapen eta Lan Publikoen departamentuko
Errepide Zaintzatik zenbait gomendio orokor luzatu nahi dute
Ultzamaldeako jendeari: "Azpimarratu nahi dugu udaletxeek
ematen duten kolaborazio maila, eta bestetik ere esatea popula-
zioari elurtea baldin badago autoa ez hartzea derrigorrezkoa ez
bada, azken finean, adibidez, eskola itxi behar baldin bada, ba
ixten da".



**Itxura ederra zerri lote honena,
bai jauna! Eskerrak Auzako Behi-
koa harategiari, beraiek prestatu
zutelako zerri haragi sorta hau.
Hurrengo urtean Ametza Elkar-
teko zozketan ikusiko dugu elkar!**

Etxez-etxe zaintzen



“Duintasuna egon behar da etxean”

Zerbitzu honen hastapenak Odietan aurkitzen ditugu. Mankomunitatea sortu baino lehen, etxez etxeko zerbitzua ematen zen bailara honetan, programa bat bezala. Zerbitzu honen zabalkundearekin batera ailegatu zen Txaro Castañares ere, duela “ia-ia 14 urte”.

Gaur egun sei langile daude lanean; “3 jardunaldi osoarekin eta besteak jardunaldi erdia egiten”, eta osotara 47 herritara ailegatzen dira. “Orokorrean agureei ematen diegu zerbitzua, %9a. Hala ere beste perfil mota ezberdinak ere baditugu; elbarrituak, edo adin txikikoekin arazoak dituen familiak, gazteagoak direnak baina

Jesus Mari Perez, Eugin jaio eta
Iraizozko bizilaguna

“Jaiotzen den lekua beti maite izaten du batek,”

Asko laguntzen naute. Etxe honetara duela urte bat baino gehiago etortzen dira langileak. Goizeko zortzitan etortzen dira eta hamarrak aldera alde egiten dute. Gaztetan artzain lanak egiten nituen Eugin. Ultzamara urtegia jarri zigutelako etorri ginen. Etxea, lurrak eta dena hor geratu ziren. Propietatea baloratu, ordaindu eta martxa!

Jaiotzen den lekua beti maite izaten du batek, baina ez zegoen beste erremediorik. Jendea kexatu zen, esan zigun mementu horretan diputatua zena, Amadeo Marcok : “Si aquí para medio ciento de personas que son ustedes, a miles de personas le va a

gaixotasun bat dutenak edo krisian dagoen familia... Aukerak anitzak dira, iaz 36 etxetara joaten ginen lanera”.

Laguntza hori jasotzeko edozein biztanlek zer egin behar duen galdetuta, Txarok erantzuten du protokoloa horrela dela: “deitzen gaituzte, normalean familiako seme-alabak dira gu deitzen gaituztenak, beste batzuetan senide edo auzokide batek deitzen gaitu. Joaten gara ezagutzera nor lagundu behar dugun eta komentatzeko nola funtzionatzen garen eta ordutegiak ezagutarazten dizkiogu. Dena ondo baldin badoa martxan jartzen dugu zerbitzua”. Hala ere, Txarok komentatu digu, edozein zalantza edo kexa izanez gero, “beti gaudela hemen, Larraitzarren, Gizarte Zerbitzuetan”.

Egin dezagun errepaso txiki bat normalean egiten dituzten lanekin: “Familia bakoitzaren beharren arabera egiten dugu lan: garbiketa, higieena, konpainia, paseatzera atera, bazkaria egiten lagundu edota gosaria hartzeko, etxeko lanetan ere laguntzen dugu... betiere pertsona horren beharren arabera moldatzen gara”.

Bilatzen duten helburuaz galdetuta, Kastañaresek erantzuten digu “gure jomuga da etxean ematen den zerbitzua, herrian bertan laguntzea da, duintasuna egon behar da etxean. Behar dute laguntza ondo bizitzen jarraitzeko. Azpimarratzen da jarraitu nahi dutela haien etxe eta sorterrietan bizitzen”.

venir bien...” Hori 1982an izan zen. Hemen azkar egin nintzen lekura, euskaldunak ere direlako, hitz egiten den euskara berdintsua da.

Gaztetan pilotara jolastea gustatzen zitzaidan, batez ere jaietan jolasten genuen, nahiz eta orain telebistan bakarrik ikus dezakedan.





Birginia, langilea. Erripan jaio eta Auzan bizi dena.

Bost urte daratmatzat gizarte zerbitzuetan lanean larraintzarren. Berez klinikako laguntzaile ikasketak egin nituen, sektore pribatuan hasi

nintzen, baina denbora gutxian hemen hasteko aukera atera zen oposaketa baten bidez eta bertan nahiko ondo geratu nintzen. Horren ondoren ordezkapenak egiten nabil. Oso pozik nabil lanean, gustura. Lan gogorra da, mota guztietako egoerak aurkitzen dituzulako. Familiak familia aldatzen da aurkitzen duzuna;

etxe bakoitzean egoera ezberdina da. Beste batzuetan eramangarriagoa. Jardunaldi erdia egiten dut eta egunero, gutxi gorabehera hiru etxetara joaten nahiz. Adibidez astean behin batera, beste batera egunero.... Normalean etxeko guztiak laguntzen ditut. Gure metodoan garrantzi handia ematen diogu norbanako higienari eta pertsona ondo sentitzeari. Honen harian, bakoitzaren autonomia lantzea ere garrantzitsua da. Beraiek egin badezakete orraztu, galtzerdi bat jarri, ba, primeran. Guk azazkalak moztu, ruloak patu, krema emango diogu... Eskualde guztian lan egiten badugu ere, nire kasuak Ultzaman bakarrik daude. Egia esan, familiakoak bezalakoak gara.

Jose Luis, Arraratseko bizilaguna

“Oso pozik nago, bihotzez esaten dizut”



Kontaiguzu Jose Luis, Nola lagundu egiten zaituzte?

“Hok espexial egiten dute, espezialísimo. Begira, primeran nago, egia esaten dizut, gusto-gustora. Astean bost egunez etortzen dira, astelehenetik ostiralera, hilabetero edo edo bi hilabetero aldatzen dira beraien artean, txandatzin dira.

Eta asteburuan, festa. Ateratzen zara dantzatzera...

Beno, tira, pixka bat ibiltzen naiz, Eta gaztetan?

Bai! Nik makinak baino aixe ibiltzen nintzen, hemen generalean, setienbren ziren festan,

Zein herrikoak ziren hoberenak,

Denak porestilo, ez zuen jendeak dirua izaten eta, antzeko guztiak. Dantza egitea gustoko nuen...

Zaila al zen ligatzea?

Ez pentsa, balsean edo ibilita, eta apropos hurbilduta... baina kontuz, itsusikeritan ibili gabe, gauzak ondo egin behar dira, beremodon.

Hala ere, lehen batek harrapatzen bazintuen, elizaraino, ezta? Ba ni ez ninduten harrapatu, soltero nago... (farrak)

Zein ordutan etortzen dira langileak?

Normalean goizeko bederatzitan etortzen dira, generalean, hamar gutxiagotan edo, ordu bat pasatzen dute...

Eta ordu horretarako altxatua zaude ?

Bai!, jexux, seiterdi, zazpitan edo altxatzen naiz, zazpitan segurismo, entre esto y aquello, bai... costumbre hartu det, argia hasi dela beitu eta altxa! Txikitan mendian ibiltzen ginen eta bertan ohitu ginen. Nik mendiari eman diot asko. Mendian hazi. Egun guztia lanean eta pentsatzen genuen, txakurrak bezala lan egiten eta bazegoen norbaitek esaten zuela: etorriko zaizkizu gero konsekuentziak. Ez genuen ez traktore ez makinik. Beste horrek egia esan zuen, orduan ez genuen somatu ere egiten esfortzua, mandokin ibiltzen ginen. Egurra hartu eta atera egurra.

Gaur egun tratorrak in eta guzti, baina ez dago bizimodu hura errex orain. Behor eta ardiak ere genituen... Aukeran emanez gero, nik hazienda aukeratzen dut.

Gustora ikusten zaizu etxex etxeko langileekin...

Hagitz gustora nago hauekin, beti humoretsu datoz, lana martxan egiten dute, hitz egin, gustora egon eta bihar arte! Pare bat urte dira etxera etortzen direla... Oso pozik nago, bihotzez esaten dizut, ez mingainarekin. Beti esaten didate, beno astelehena arte, eta erantzuten diet: “Ahí está, oraindik urrun...”

Negu gogorra izaten ari al da aurtengoa?

Bah! Lehenago gehio egiten zuen, begira, lehen bagenituen lau mando zura ateratzeko, eta behin, elurra, ikaragarri eta etxera bueltatzen ginen mandoekin, mendian ezin lan egin. Bi baserri bi genituen ardi eta behorrak gordetzen genituenak, eta hauetako bat oso altu genuen 1.000 metrora edo. Bidean nengoen animaliak in, kritson elurra eta mandoa hartu eta bueltatu zen bordara, bertan utzi eta nik bakarrik itzuli nintzen, portxiripa ailegatu nintzen.

Martxoak 8



Ikastaro honetan landu egin ziren zenbait ideia, nahiz eta “tertulia antzeko batean bukatu”, gogoekin etorri omen zen jendea, eta alde batera eta bestera desbideratu zen asuntia.

Mugarik Gabe elkarteko Mirenekin elkartu gara, lehengo egunean gurean egindako ikastaroa eta bere elkarteari buruz hitz egiteko. Martxoaren lehengo egunean Larraintzarren egin zen ikastarora 35 bat pertsona hurbildu ziren, “oso sorpresa ederra izan zen”. “Eskertu nahi diegu bai Amaia, Irantzu eta losuk egindako lana, ia-ia atez ate joan zirelako jendea deitzen”. Elkarte autonomo hau duela urte dezente Hegoalde zein Iparraldeko emakumeekin lan egiten du. Bertan emakume zein gizonek egiten dute lan: “Gure helburua, orokorrean, partaidetzak sortzen dituen etekina erakustea da, antolakuntza-aren bidez, talde bezala funtzionatzeak ekartzen dituen onurak ikustea”. Partaidetza hau, soziala da, eta horrek ekartzen duen “barne-botere” hori lantzea da garrantzitsu, “horrela kolektiboki eta pertsonalki indarra hartzen dugu”. Bestetik, “lagundua sentitzearen sentimenduak, laguntza handia ematen digu”.

Alde batetik, feminismoaren kontzeptua berrikusi; honi buruzko zenbait mito daude indarrean oraindik, “eta zergatik dira ezagunak? Zerbaitengatik da hau, sistema erasotzen duelako, zalantzan jartzen duelako, eta hori, noski, arriskutsua da.

Bertara hurbildu zen jendeak oso modu aktiboan parte hartu zuen; “gai askori buruz hitz egin genuen, emakume askoren esperientzia ezberdinak atera egin ziren, landa eremuarekin zerikusia duten esperientziak... Zenbait gai berezi eta interesgarriak atera egin ziren ere, hala nola amatasuna, erruaren kontzeptuari buruzko zenbait gogoetak ere, hezkuntzak ezartzen duen “motxila pisutsuari buruz”, familiako kideen zaintzari buruz ere hitz egin zen... “Azpimarratu nahiko nuke” dio Mirenek, “emakumeen arteko errespetuaren gaia; hartutako erabaki edota bakoitzaren ideiez aparte, errespetatu egin behar gara aurrera joan ahal izateko”.



Ultzamaldean

Aurtengo Emakumeen eguna ospatzeko Ultzamaldean hainbat ekintza burutu dira, eta nahiz eta artikulotxo hau egiterakoan ez dugun programazioan genituen ekintzekin bukatu, orain arte egindakoen berri eman nahi dizuet.

Martxoaren 1ean, ostirala, Mugarik Gabe elkarteko emakume taldea izan genuen gure artean, Larrainzarko Zentro Zibikoan, eta bertan parte-hartzearen inguruan eta genero ikuspegiaren inguruan aritu ginen.

Bertara gerturatu zen jendearen artean eztabaida sakon eta interesgarria suertatu zen, bai emakumezkoen parte-hartzearen inguruan, bai gizonezkoenaz ere. Baina batez ere parte-hartze ezberdinaren kausak, zailtasunak, sortzen diren egoerak edota ondorioak aztertu ziren.

Eta martxoaren 7an, emakumeen egunaren bezperan, Eltzaburun Ta oain ze? Antzezlan izan genuen.



Ttako Teatro taldearen eskutik, bertan, bi emakumek, guztiok ditugun barne ahotsak sortzen dizkiguten emozioen errepresentazio bat egin zuten, eta bertara gerturatu ginenok gertutik honetaz hausnartzeko aukera izan genuen. Bi emakume ziren aktore, baina pertsona bakar bat errepresentatzen zuten, gu geu eta gure barne ahotsak edota gure kontzientzia bezala eza-gutu ohi duguna.

Gure barreneko ahots horiek nola mugatzen gaituzten ikusi genuen, mina, desioa edota zoramena sentiaraziz, eta honek gure eguneroko bizitzan duten eragina ere.

Antzerki berezia, antzezlan berezia eta giro berezia sortu zen bertan!

Martxoko argazkia: Manifestaldia Iruñean



Zerorrek aukera, zerorrek erabaki

Edo zeuk aukeratu, zeuk erabaki. Cajanavarra fundazioak 5,14 milioi euro ditu aurtan banatzeko, giza laguntzetarako. Diru horretako parte bat bederen, zuek eta guk erabakiko dugu. Eta horretarako, Nafarroako edozein kultur, kirol...elkartek beren proiektua aurkeztu ahal izan du. Guk, Ametzakook ere aurkeztu dugu eta Pulunpe eta Esan Erran Irratia du izena. Eman diguten numeroa: 50302.

Nafarroa guzian 400 elkarte eskatu dute honetarako eta besterako diru-laguntza. Baina diru-laguntza hori erdiesteko jendeak firmatu behar du proiektu baten edo beste baten alde, eta proiektu bakoitzak biltzen dituen atxikipenen arioren hartuko du dirua: Biltzen duen firma bakoitzeko 10 euro. Zenbat napartarrek firmatuko dute? 80.000 lagunek? 100.000 lagunek? 120.000 lagunek? Bada 800.000, 1.000.000 edo 1.200.000 euro banatuko dituzte. Gainerakoa, 5,15 milioi arte, Fundazioak berak banatuko du nahi duen eran.

Harrigarria iruditu zaigu, euskararen aldeko zein elkarte gutxi dauden. Zein gutxi! Laurehun elkarte horietatik 9 besterik ez dira euskararen alde diru bilketan ari direnak. Horietako bat gu gara, Ametza. Zezenketen alde ere badira ia-ia gu bezainbat. Zer pasatzen zaigu euskaldunoi dirua pixka bat jasotzeko aukera dugunean ere hain herabe, hain uzkur baldin bagaude?

Eta okerrago dena, 9 proiektu eta horiek ere firma aski ezin bilduz! Inola ere ezin bilduz!

Euskaldun, euskaltzale eta herritar, emaguzu botoa, bildu gure alde atxikipenak, Ultzaman, Burlatan edo Kaskanten. Nafarroa guzira zurea duzu (Nafarroan eroldaturik egotea eta 18 urtez gorakoa izatea da eskatzen den gauza bakarra) Deitu zure lagunak,

deitu zure adiskideak, deitu zure lankideak. Euskararen alde aurkeztu diren proiektuen alde egin. Bildu gure alde firmak. Larri gaude. Aspaldian estu gabiltza Ametzan. Euskara bera ere haxe dago, estu, larrialdian. Eta Euskal Herriaz zer esan?

Euskal Proiektuen alde egin. Zerbaitengatik gure alde, Ametzaren alde egin nahi ez baduzu, hona hemen euskarazko hedabideak aurkeztu dituzten proiektuak:

Ametza (Pulunpe eta Esan Erran Irratia).....1.800 firma

Guaixe (Irratia eta astekaria. Sakana).....5.000 firma

Ttipi-Ttapa hamabostekaria (Bortziri-Leitza eta Goizueta)..2.660 firma

Xorroxin irratia (Baztan).....23.335 firma

Eta euskarazko hedabideez gain, euskara kontuetarako ere zuzen-zuenean eskatu dutenak, honako hauek dira:

NafarroaOinez.....10.000 firma

Valdizarbe. Euskararen normalizazioa.....2.500 firma

Dindaia fundazioa. Haurren aisialdia eta abar.....8.600 firma

Ttikiena Basaburuko haurrendako eskola.....3.900 firma

Arturo Campion euskaltegia, Iruñea.....331 firma.

Horietatik, zenbatek erdietsiko dituzte behar dituzten atxikipenak?

Euskaldun guziok egin dezagun ahalegin pittin bat, eman dezagun gure firma, eta oraingoan ez besterik, gure hizkuntzaren alde. Ez da asko eskatzea, ez horixe, firma ziztrin bat, besterik ez.

Eta kontuan izan, hil honen 30a baino lehen egin behar dela.



Ikuspuntuak



Basaburutik Atezera



KORRIKA



Sartu gure
webgunean
eta bertan
Korrikako
argazki
mordoa ikus-
gai daukazu!

Hurbiltzen ari zaigun itzal elektrikoa



Heldu diren asteetan Autopista elektrikoaren ibilbidea zehaztuko da. Basaburutik pasatzeko aukera nagusien artean dago. Proiektu honen aurkako plataformako kidea eta Arraratseko bizilaguna den Mikel Berekoetxeak daturik esanguratsuenak eta gaur eguneko egoera hurbiltzen digu.

Ibura: "25 solairuko etxe erraldoiak bezala"

80 metroko altuera duten dorreek osatutako bide elektrikoa; 28 metroko zabalera hartuko duena, bere azpian dena garbigarbia egon behar, basoa soildua. Eremu elektriko handia eratzzen dutenez, altuera handira altxatu behar dira. Goi-tentsioko 18 hari eramango ditu; osotara 400 gigabit eramaten dute. Elektromagnetismoarekin lotuta dauden osasun arazoak direla eta hauetatik 80 metrora ezin daiteke bizi. "Ebaki bat basoaren erdierdian, autobia baino zabalagoa, eta metalezko dorre erraldoiekin".

Gaur egungo egoera

Gaur egun definitu gabe dago ibilbidea. Iruñetik gora, Irurtzun parera ailegatuko da, eta bertan bi aukera nagusi dago, alde batetik Sakana aldetik edo bestela, guretik pasa. Ibilbidea: Basaburua, Larraun, hortik Gipuzkoara, eta Itsaso herrian bukatzen da, Beasainen parean. "Proiektua prest dago, eta itxuraz, laster aurkeztuko da. Sakanan bi linea dituzte jada, 220 eta 160 gigabitekoak, eta hirugarren bat ia-ia ezinezkoa da sartzea, eskualde honetatik oraingoz ez da deus pasatzen, eta plataformaren kezka bizigune gutxiago hemen dagoenez, gurean sartzea. Hala ere, beste alternatiba bat Sakanako linea bikoiztea izan daiteke, baina bertan kezka handia sortzen du horrek ere".

Proiektua "heldu diren asteetan" aurkeztu daiteke

Aurkezpen egunik ez badago ere, tramiteetan daude jada. Mikelek esaten digu "indefinizio" batean daudela, "Tuteratik-Itsasora zein herri gurutzatuko dituen jakingo dugu, Lizarra-Tafalla-

Iruñea-Irurtzun... horren harian aurre alegazioak sartu ditugu, baloratu behar dute nondik egingo duen kalte gutxiago, eta suposatzen da horren arabera erabakiko dutela".

Mobilizazioa, erabakigarria

Antzeko egitasmoa saiatu zuten Lizarra eta Gasteiz artean eta atzera bota zuten, "gehienbat gizarte mobilizazioaren eraginez, bertako herriak eta gizarteak kontra agertu zirelako".

Redes Electricas Españolas: "Espekulazioa eta aitzakiak"

"Valladolid edo Asturiasen behar elektrikoa omen dutela diote, eta hemendik sartu nahi digute... guk ez dugu behar. Ingurunea txikituko da, eta baita kulturalki eta paisajistikoki ere. Adreiluaren burbuila bukatu zen, orain energian inbertitzen ari dira enpresa handi, banku eta eraikitzaileak. Gezurrak gezur, gizarteari ezkututzen diote argindarraren kontsumoa jaitsi dela".

Nafar Gobernua: "Isiltasun konplizea"

"Hemengo kontzeju eta udaletxeek alegazioak aurkeztu dituzte, nafarron ondasunen defentsan. Aldiz, Gobernuak ez du deus egiten, eta hori ez da zilegi. Gizarteak jakin behar du isiltasun horren arrazoiak, bestela, triskantza horren kalteak, badakizue nork ordainduko dituen".

Azken mobilizazioak:

Pasa den martxoaren 7an, Nafarroa mailan itzalaldiak egin ziren kaltetuak izan daitezkeen herri guztietan. Iluntze aldera zintzarri eta eltzeekin eztanda egin zen. Zozketa bat ere egin da, eta hauek dira saritutako zenbakiak: 3.745 eta 2.448. Azkenik, Autopista elektrikoaren aurkako plataformatik gonbidatzen zaituzte martxoaren 23an Iruñeko gaztelu plazan agertzeko. Karpa bat jarriko dute eta 400 minututan informazio eman eta "publikoki salatuko dugu dagoen egoera, proiektu guzti honen atzean dauden aitzakiak eta espekulazioa".



Askatasuna, airean

**Reyes Ilintxeta Euskalerrria irratiko esataria
"Guretzat garrantzitsuagoa da jendearen baimena"**

Txantrea auzoan bizi den kazetari honekin mintzatu gara Iru-
ñeko irradi euskaldun honen egoeraz. Lizentziak, epaitegiak eta
azken finean, non dagoen hedabide baten legimititateari buruz
solastu gara.

**Nola hartu duzue irratiko lizentzien banaketak berriro ere zuei
bat ez egokitzeak?**

Eseru genuen, egia esan itxaropen txiki-txikia baguenen,
beti atea itxaropenari irekia utzi behar diozu, baina aurreko bi
deialdietan bezala, hirugarren honetan ere bazterrean utzi gai-
tuzte berdin-berdin. Gogora dezagun 1998ko irratiko emakiden ba-
naketa eta lizentziarik gabe emititzeagatik 30 mila euroko
isunak; helegitea dugu epaitegietan.

**Hala ere, zuek zenbait irregulartasun aurkitu dituzue bana-
keta honetan...**

Oso modu txarrean egin dute; joan ginen lehiaketako espe-
dientea ikustera eta zein izan zen gure sorpresa ikustean, pro-
gramazioaren arloan, zati bat ez zigutela baloratu, horrek esan
nahi du gureak behar ziren puntu batzuk ez dizkigutela eman.
Lehiaketako bosgarren postuan geratu gara eta bi lizentzia ze-
goen bakarrik iruñerriarentzat. Gure aldarrikapena da atal guz-
tiak baloratzea. Erregistro bidez prozesua geldiaraztea eskatu
genuen, baina ez ziguten jaramonik egin. Jadunik sinatu dituzte
lizentziak, horrek esan nahi du ofizial egin dituztela emaitza ho-
riek.

**Beraz, berriro
epaitegietara...**

Hortik jarrai-
tuko dugu, geure
ustez arrazoi du-
gulako, gure
ustez eta baita le-
gearen arioren ere.
Europako legeek ho-
rrela esaten dute, argi eta garbi, badira lege batzuk eta ez baka-
rrik "hizkuntza minorizatuen gutuna" eta holakoak... ez, ez,
benetako zuzentarauak esaten dutena hizkuntza txikiak bultzatu
behar direla modu ezberdinetan... Lege guzti horiek karpetan
izanda joango gara epaitegira esatera Europak oso garbi duela
zer den hau, zer den kultura eta zer den hizkuntza bat izatea,
eta orduan zentzu honetan guri ematen digutela arrazoiak.

Europako legeek Nafarroako eta Espainiako legeak baino
indar handiagoa dute, eta hori demostratu nahi dugu epaitegian.

Elkartasun kanpaina egiten hasi zarete jada

Lizentzia gora baimena behera... guretzat garrantzitsuagoa
da jendearen baimena, eta horregatik "zuen baimenarekin" kan-
paina egiten ari gara, jendearen sostengua jasotzeko, adieraz-
teko jendeari guk segituko dugula lanean, noski, guk sentitzen
dugulako jendearen baimen eta aupada hori dugulako, eta bide-
nabar, sosak eta bazkideak jasotzeko, diru-laguntza puntualak
jasotzeko, krisi garai honetan oso diru premia larria dugulako,
mundu guztiak bezala; dirua, sostengua, elkartasuna... biltzeko
gure lana jendeari eskaintzeko.

Iritzia

Nafarroa uhinez kanpo

Trantsizioaren lehen urteetan Ita-
lian izan nintzen Milanen entzule ge-
hien duen Radio Milaneko irratsaio
batean. Irrati librea zen, ezkerrekoa,
eta pil-pilean zeuden gaiei buruzko
eztabaidak ematen zituen. Herrial-
dean ehunka antzeko irratik zeuden,
Estatuko monopolio handiekin lehian.

Gogoan dut orduan uste nuela demokrazia espainiarrean
ere halako zerbait gertatuko zela: airea denon ondarea
zen eta askatasunekin, edonork emititzen ahal zuen al-
damenari eragozpenik sortu gabe. Kalitateak, entzuleek
eta merkatuak (horretaz ari da kapitalismoa, ezta?)
arautuko zuten medioa eta bakoitzak nahi zuen irratia
sintonizatu ahalko zuen askatasun osoz.

Azken 30 urte hauetan UPN eta PSOEek Madrili eman

diote irratien espazio oso-oso ezeren truke. Eta frankis-
moaren luzatze honekin dagoeneko bi belaunaldi izanen
dira hilko direnak ez bakarrik Radio Milan ezagutu gabe,
baita demokrazia mediatikoaren antzeko zerbait ere. Na-
farroa uhinetatik kanpo dago.

Egoera iraingarri hau nolabait arindu ahal zen berriki
egin den 42 lizentzia berrien lehiaketarekin; gure kon-
tura barre gehiago egiteko, gainera, "hurbileko irratia
sustatzeko eta aniztasun ideologikoa bermatzeko asmo-
arekin" iragarri zuten lehiaketa hori bere garaian.

Benetako demokrazia batean ustelkeriagatik epaituko
zituzten Nafarroako Gobernuaren arduradunak eta lehia-
ketan azpijokoa egin duten teknikari morroiak. Nafarroa
aske batean horiek guztiak deserriratu zituzten. Eta
XVI. Mendean urkatuko zituzten aberriaren kontrako de-
lituagatik. Horixe da gaur egungo nabarrismoa: zentralis-
moaren Troyako astoa.

TESTU OSOA AMETZA.INFO WEBGUNEAN

PULUNPe 13

Joxe Mari Esparza

IRRATI KONTUAK

Ehiza kotoak, arriskuan

Nafar Gobernuak aurrera atera du lege berri bat basozainak koto gutietan ezarriz. Ehiztariarentzat “sostengaezina” bihurtu daiteke egoera

Urtetan atzera eta aurrera egon dira legearekin, patata bero baten modura. Azkenean onartu egin denean, ehiztariak “altxatu” egin dira.

Zein da arazoa? Bost-Batean deitutako ehiztari kotoaren presidentea den Karlos Txibiterek hitz egin dugu; berarentzat arazoa, ekonomikoki sostengarria ez den lege bat ezarri dutela da, besteak beste. “Orain arte guk geuk egiten genuen orain langile batek egin beharreko lana. Ekonomikoki hitz eginda, arazoa handia da: “Ordaindukoaren bikoitza ordaindu beharko da hemendik aurrera”. Lege honekin oso kritikoa agertu da Txibite: “Gaizki idatzia, eta akats mordoa dituen, atzerapenak izan ditu 2005etik aurrera; hala ere 2013ko urtarilaren 31tik aurrera, Ehiza Legea indarrean dago”.

Lege honen aurrean, ehiztariak mugitzen ari dira; bilerak elkarte eta federazioaren artean egin, “dexente ondo” antolatzen ari ere, eta Ola-



güen elkartu ziren otsailaren bukaeran. Komunikatu bat bidali zioten eskualdeko udaletxeetara. “Idazki honetan, dagoen egoera salatzen dugu eta legea borondatez betetzekoa izatea eskatzen dugu”. Lege berri honen arazorik handiena basozain hauen funtziotan dago: “Oraitxe bertan, langile hauek egin behar dutena guk jada egiten dugu, beraz ez da beharrezkoa”. Funtzio konkretu hauek hurrengoak dira: migrazioen kontrola, harraparienen

kontrola, administrazioarekin erlazioa...” Azken finean guk autogestionatzen dugu hau. Guk nahi ez duguna nahitaez ezartzea da”.

Lege honen atzean interes politikoak egon daitezkelaren susmoa badute ere, gobernuak kide batek basozain enpresa bat duelako.

Alde batetik, eta ehiztarien ezinegon handia bada ere, kontutan arte behar da, oraintxe bukatu dela ehiza denboraldia, eta iraila arte ez da berriro ehizarik egingo. Karta guztiak, beraz, mahai gainean daude, eta ikusiko dugu nola jokatzen den partida udan zehar.

KORRIKA 2013

AMETZA.INFO BIDEOA

Gure historia, gure ikuspegitik

ERLANTZ URTASUN, HISTORIALARIA



Lau saioko ikastaroa antolatu dute Basaburu eta Imozko Kultur batzordeek Nafarroako historia beste modu batez ikusteko asmoz. Erlantz Urtasun historialaria izango da ikastaro honen dinamizatzailerak. Esan Erran irratiko Egun Ero irratsaioan egin genion elkarrizketa txuri eta beltzean jarri dugu, oraindik ere beste hiru saiogeratzen direlako eta edonor apunta daitekeelako.

Zer ikusiko da saio hauetan...

Lehenik eta behin, garrantzitsuena da esatea, saio hauek euskaraz izango direla, eta hau horrela izatea ez da ahuntzaren gau erdiko ez-tula. Normalean horrelako ikastaroak, liburutegi eta eskoletan erdaraz egin ohi dira, beraz hori gauza benetan ona da. Egingo duguna da Nafarroaren historiaren ikuspegia eman. Laburpentxo hau, lau egunetan egingo dugu, hasiera hasierako garaietatik gaur egunera arte. Elkartuko garenen artean ikusi behar dugu zer den jendeak gehien ezagutu nahi duena eta horri hartuko diogu. Beraz erromatarren edo aurreko garaietatik aurrera, hasiera-hasieratik abiatuko gara. Aizarotzen izanen da, baina inguruko guztientzat izanen da, jakina.

Eskolan ikasi ez dugun historiari buruz da. Lehen aipatu dudan moduan, euskaraz arituko gara. Beti irakatsi dena bakarrik pixka bat aldatzen zen, orokorrean, irakaslea jatorra baldin bazen, denok izan dugu irakasle maitekor edo hurbil hura...

Mantentzen da eredu zaharra hezkuntzan...

Gaur egun oraindik ere testu liburuetan ikas daitekeen historia frankismoan zegoena edo aurki zitekeena, aldaketa gutxiarekin. Emanen dugun historia da eskoletan ikasten ez dena, gure munduari buruz, euskaldunon

ikuspegitik. Azpimaratu nahi dut ere beste saio batzuk egon behar direla, edozein momentutan agertu daitekeela edonor, ez dela beharrezkoa hasierako saiotik etortzea...

Hemengo historiako pasadizoren bat?

Aurreko udazkenean artxibategian miatzen nengoela, jatorrizko paper zahar batekin egin nuen topo; eskualde honetako jendea konkistaren ondoren joan ziren Iruñera kexatzera zerga mordoa ordaintzen zuten eta. Salerosketak aurrera eramateko zailtasun handiak zituztela, deus gutxi jaso eta debeku pila pairatzen zituztela, lan egiteko ere zailtasun ugari... Ultzama aldekoek salatzen zuten konkista baino lehen ez zela hori gertatzen. 1512ko konkistaren ondoren hitz egiten ari gara, hamarkada batzuk geroago. Orokorrean protesta egin zutela herri txikiak ordaintzen zuten handiak eta boteretsuak baino gehiago... Zenbait gauzetan gauzak ez dira gehiegi aldatu.

Pasadizoarekin nahikoa ez baldin bada izan, anima ezazu norbait ikastaroetara gerturatzea.

Labur-labur: ez da txapa izanen, tertulia egingo dugu, gauza dezente kontatuko dira, liburuak, mapak erakutsiko ditut, material asko ekarriko dut... solasaldia, animosoa, bizia... helburua da jendea gosez geratzea, jakiteko gosez.



Ametza.info webgunean eskegi dugu Erlantz Urtasunen idazki interesgarri bat:
"Pedro Lopiz Zamorakoa"

"Nafarroaren Historia"
ikastaroa
Azalpenak, galderak eta solasaldia.
Aizarotzen,
Apirilak 11,
Kuota, 15€ lau egunetarako.
Izena emateko Basaburu eta Imozko udaletxeetan







IZENA EMATEKO 948 305353
ssbultzama.kgarces@infolocal.org

HERRI KIROLAK

Nafarroako XXVI. Kirol jokoak

HERRI KIROL TXAPELKETA

Antolatzailea:
Elkartea: Euzko Kirol Federazioa
Lanburuak:
Aitor Etxebarria
Mikel Etxebarria

PAISE: HAZIARRAK
KIROLAK: (1) 12 URTE HAUTAK (2) 14 URTE HAUTAK (3) 16 URTE

FINALAK:
ULTZAMAKO
FRONTOIAN
MARTXOAREN 24an
11:00ETAN



NOLA JARRI ETB 3 ZUEN HAURREI

1. Behar dituzu:
 - Telebista bat, HDMI sarrera duena
 - HDMI kable bat
 - Ordenagailu bat, HDMI sarrera duena
2. Telebista eta ordenagailua konektatu.
3. Bilatu ETB 3ko programak www.eitb.com webgunean. Bi bide dituzu:
 - a) Zapatu "ETB nahieran" dioen lekuan.
 - b) Zapatu "Hiru 3" dioen lekuan.

Laguntzarik behar baldin baduzu, galdegin zure inguruan. Baten batek jakinenu du.

Informazio gehiago:

<http://www.slideserve.com/Nafarroasalaketa/nola-ikusi-etb-3-nafarroan>

Oskar Sada, "Gomi"

"Pulunpetto talde lana da, auzolana"

Pulunpetto aldizkariak 25 ale bete behar ditue-
nean, lan honen atzean dagoen pertsona elkarri-
zetatu dugu: Gomi txantrearrak egiten duen
"koordinazio eta maketazio" lana guztioi erakus-
tean, pasa diren bost urte baino gehiagoko lana-
ren onarpena egiten dugu orrialde honetatik.

Nola sortu zen Pulunpetto proiektua?

Lehenik eta behin Pulunpe ezagutu nuen, eta ber-
tan kolaboratzen hasi nintzen marrazkien bidez.
Arantxarekin adiskidetu nintzelarik, lan harreman
oparo batekin hasi ginen. Mementu bat ailegatu
zen, ikusi nuela umeek ere behar zutela, eskubidea
zutela, beraientzat egiten den aldizkaria izatera.
Zonalde honetan ez zegoela euskarazko aldizkaririk
hori egiten zuenik.

25 zenbaki dira jada, zein da lan prozesua

Hasieratik honat erabat aldatu da, asko aldatu da,
saiaitzen gara gaudenen artean banatzea. Ale berri
bat hasi behar garenean "idei zaparrada" bat egiten
dugu eta hortik ateratzen dugu aldizkariaren oina-
rria. Nire eskuetatik pasatzen da material guztia,
koordinantzen dut hainbat pertsonen lana. Bakoit-
zak gustokoen duena hartu eta listo! Komentatu
nahi dut ikuspegi ez arrazista ezta sexista batetik
egiten dugula Pulunpetto. Lana bilduta dagoenean,
maketatu eta bidali. Pulunpetto talde lana da, auzo-
lana.

Zein izango dira hurrengo pausoak, etorkizunari begira?

Ikusten dudana da, hutsune handi bat dagoela
umeentzako komunikabideetan. Oso interesgarria

iru-
ditzen
z a i t

Ametza be-
zalako talde bat
egotea, eta nola kudeatu

eta banatzen duten aldizkaria. Gustatuko litzaidake
egindako lana gehiago zabaltzea, jende gehiagora
ailegatzeko, zenbait eskari jaso egin ditugu aldizka-
ria beste bailaretara ere ailegatzeko, etxe gehia-
gotara ailegatzeko.

Mezuren bat Ultzama aldeko jendearentzat

Esan nahi dut jendearen partaidetza handiagoa
izatea gustatuko litzaidakela. Azken finean gaztet-
xoentzako aldizkaria da, baina ez dute gaztetxoek
egiten. Parte hartzeko modu asko daude; marraz-
kiak bidali, ipuinak, asmakizunak, ideiak... Gaur
egun lantresna mordoa ditugu eskura, erabili ditza-
gun! Adibidiez, gustatuko litzaidake blog edo web-
gune bat egitea, azken finean horra ari dira
pasatzen komunikabideak. Lagunduko al didazu?



BERRIKETAN

Erbiti aldean kontu kontari

(Pakita Garro Iribarren)

Erbitin badugu Martikonea edo Mattikonea; aspaldiko paperetan horrela da ageri, 1726ko katastroan, esate baterako. Ehun urte lehenagoko paperetan ere halaxe ikusi ahal izan dugu. Etxe honetan aspaldian Garrotarrak bizi izan dira, hala esan digu Pakita Garrok. (Paper zaharretan ikusi ahal izan dugunez, Erbitiko lehen Garrotarra Jauntsarastik ezkontzaz etorri zen 1865. urtean gutxi gora behera) Etxe honetan hazi zuen Pakitak Garro Iribarrenek bere familia Patxi Lazcano Balda senarra zenarekin batera.



Txurdan

Elur urtea dugu aurtengoa, orain bi egun ere elur ederra bota du baina karreterak garbitu dituzte eta Pakita bisitatzeraz hurbildu gara Erbitira. Orain bi urte ere egon ginen Pakitarekin eta orduan kontatutakoak berritza etorri naiz Pulunpen argitaratzeko zenbait kontu, Garrotarren familiaz eta herri honetako zenbait xehetasun kontatzeko.

-Norena dugu Mattikonea, zure sortetxea?

-Badakizu, hemen etxe guziak bi nagusirenak izan dira: Etxebertzeko-ena izan da *Txotola*, eta beste gainerako guziak Aldazko Lopenekoenak, *Mattikonea*, gurea ere bai.

-Nola zen zuen familia.

-Gu zortzi senide izan gara. Zaharrena mutikoa eta beste gainerako guziak neskatoak. Senideetan hirugarrena ni, eta ni gelditu nintzen etxerako.

-Eta eskolan non ibili zinen?

-Eskola zaharrea, baina oso-oso denbora laburrean. Zaragozako zen maistra eta Gartzaronen bizi zen. Ni hasi eta oso laster eskola berria egin zuten. Badakizu, garai hartan, hemengo eskolara etortzen ziren Aizarotz, Gartzaron eta Orokietakoak ere. Ondoren egin zuten Orokietako eskola. Eta Gartzaronen ere jarri zuten eskola Apezetxe zaharrea. Azkenean, Erbitiko eskola soilik Erbitiko haurrentzat izanen zen.

Buru oneko emakumea, kontatu digu nola joaten ziren, egunero, eskolatik atera 12etan eta, oinez, Gartzarona, doktrina ikastera; eta nola apezak eta maistrak ikasketak egitera Iruñera igorri nahi izan zuten baina etxean nahi ez. Jakina, orduan ia inork ez zuen horrelakorik egiten ahal, etxeko ekonomiak

ez zuen baimentzen.

-Zein maistra edo maistru duzu gogoan?

-Bueno! Maistra franko ibili zen hemen, baina luze egon zena Doña Blanca Navascues Eugui izan zen, Carlos Eugui aberats famatuaren iloba. Pentsa, ni ibili nintzen honekin eta nire umeak ere bai.

-Nola gogoratzen dituzu zure gurasoak?

-Monumentu bat merezi lukete. Ama zortzi umerekin, bere gurasoak zahartuak eta osaba bat ere baguenen. Atera kontuak! Nolako lanak! Eta gero

gure aita nekazalgoan, izugarri langilea. Gure aita oso gizon zuzena zen, oso zuzena.

(Nekazalgoa bakarrik ez, ostatua ere izan zuten etxe honetan garai hartan. Gero Gaxparrenak hartu zuten ostatua. Gure etxean ezagutu izan ditut iho-teak egiten ere)

-Senarra ere hurbilean topatu zenuen ba.

-Bai, Orokietako Etxandikoa zen, eta hiru ume izan genituen, zaharrena mutikoa eta gero bi alaba. Bernardo daukat etxean, neskatoak ezkondu eta hemendik kanpo bizi dira.

-Etxe berri dotorea ere egin duzue.

-Bai, Bernardok, semeak egin zuen. Eta orain hemen bizi naiz berarekin batera.

Honekin bukatuko dugu, kontu guziak sartzea ezinezkoa zaigu, Pakita. Berriz ere laster ikusiko dugu elkar. Izan ongi.



Ioritz, Amaiur eta Nahia, ilobak beren amonarekin.

Etxeetara ura.-Lixu jotzea

-Pakita, kontu zaiguzu zerbait ura etxeetara ekartzeaz eta.

-Iturria herritik gorago dago. Eta gure amonak eta amak esaten zuten, hortik ekartzen zutela ura. Eta hortik *Etxebertzera* paraturik omen zegoen ura baina bestean etxetara ez. Gero 1900. urtean jarri zuten herrian berri-berri labaderoa eta beherago aska bat eta txorrotaazienda eta jendearendako. Eta askoz ere beranduago, gure ahizpa, laugarrena edo bosgarrena jaio zenean jarri omen zuten etxeetara.

(Errepublikara garaia zen)

-Eta lixua eta non egiten ote zuten?

-Lixua, behitiko errekan, batzuek *Labakin*, besteak *Presondoan*, hor beti. Ni ere ailegatu naiz, amari laguntzen, *Lixuitteko* edo *Lixujotzeko* soroan.

Gerra zibila eta gure arbola

Gerraz ere zer edo zer gogoratzen da Pakita, nola jotzen zituzten ezkilak Frankoren aldekoek hiriren bat hartzen zutenean eta. Oso gaztettoa zen garai hartan Pakita, gerra hasi zenean sei urte bete gabeak (1936-1939) Gerra 1939ko apirilaren lehenenean bukatu zen.

-Bai, oroitzen naiz nola joaten ziren gure ama eta *Etxebertzera* puntu egitera, soldaduendako jertseak eta egitera. Gero, nola errekiatzuten zituzten zekorrak-eta ere bai.

-Pakita, gerra bukaerako kontu bat ere badugu ba hemen.

-Bai, gerra akabatu zelarik, nire anaia zenak eta Luis, *Etxebertzekoak*, landatu zuten hemen dagoen pinu handi hau.

Ekarri zuten Itturkotik. (1939ko apirilaren lehena edo bigarren eguna izanzen zen hori, udaberri sartu berri-berrian)

Orain urte batzuk ibili ziren herriko zenbait arbola markatu behar zituztela eta, hala esan nion alkateari: Ni bizi naizen artean behintzat ez ezazuela bota arbola hori.

Pakita, arbola horrek (Austriako larizioa da) iraunen du zutik oraindik ere eta iraunen ahal du beste 100 urte gerrarik ezagutu gabe. Hori genuke inportanteena, beste horrelako arbolarik ez landatu behar izatea.



Hitza itxaron orde, bidea ematen

Keinukako komunikazioaren bidez Mentxu Isturiz aizarotzarrak hitz egiten ikasi baino lehen umeei "kasketak eta negarrak" ekiditeko gor-mutuen antzeko hizkuntza bat irakasten die. Etxe eta elkarteetara mugitzen da. Hurbildu gaitezen historia berri honetara.



Koka gaitezen etxe anonimo batean; bertan zortzi hilabeteko haurtxoa dago bere aulkitxoan eserita lasai-lasai. Meriendatzeko ordua da, dena ondo doa, umea jaten, konzentratuta eta pozik; baina bat-batean, kable-ren bat gurutzatu, eta umea hasten da mugitzen, soi-nutxoak egiten...

Zer gertatzen zaio? Galdetzen dute guraso ardura-tuek? Eta mementu horretan hasten dira asmakizunak: "Ura nahiko du? Ez, ez, izango da pelutxea nahi duela, ez ez! Nahiko du... aaaahg! Pardela da..."

Umeak izan duenak ederki ezagutzen du eszena hau, nahiz eta asmatua izan, askotan gertatu izan dela. Irakasten erraza den sistema honen bidez lortu nahi dutena da "umeak ahots aparatua garatu arte eta beraiek komunikatzeko beharra dutenean" zubi bat ematea. Oinarria ezaguna da: "umeak ditugun guztiok badakigu haurrak 6 eta 8 hilabetetik aurrera umea hasten dela nahiak eta oinarrizko behar batzuk komunikatu nahian, eta guri transmititu nahi digute, baina ez dute oraindik modurik. Sistema honen bidez, keinuak ematen diegu. Zer

lortzen da oinarrizko hizkuntza hau garatzean? Mentxu. "alde batetik, umeak nahi duena komunikatu egiten du, konfiantzaz zuk ematen diozuna, horrek umearen autoestimua igotzen du eta frustrazioa jaistea lortzen da".

Ume txikien haserre eta kasketek gurasoak ere frustratu egiten dituzte, eta hizkuntza hau ikastea ez da oso zaila, batez ere errutinatuta oinarrituta dagoelako umeen bizitza: "Bizitza sinplea da haurrengan; ez dago ez euribor, ez lbexik,

ezta historiarik... esnea, titia, janaria, lo egin nahi dut, animaliak... Geroago, denbora pasatzen den heinean, hazten direlarik, beste animalia berriak sartzen dira, parkea ezagutu, txirrista...

Metodoa

Alde batetik, sistema hau ez da berria: "Betidanik erakutsi diegu keinuak; agur esateko, musu emateko... hemen ezberdintasuna da beste keinu ezberdin eta berri batzuk emango dzkiegula, eta umeak hartuko ditu behar dituenak. Bestetik, sistema hau ez da berria Alaskan hasi zelako 80. hamarkadan: "bertako unibertsitateko ikasle batek gor-mutuen hizkuntza ikasten hasi zuen. Gor-mutu lagun talde bat egin eta jabetu zen hauen semeek 9 hilabeterekin edo oso arin komunikatzen zirela, eta bere doktore tesia horri buruz egin zuen, ea gor-mutuak ez diren umeak keinuak ikasi dezaketen eta zer abantaila izan dezaketen bizitzan..."

Gor-mutuen hizkuntzan oinarritua baldin badago ere, umetxoentzat moldatua dago; hauen psikomotrizitate, hau da, hauen esku txikietara. Ikus ditzagun keinuren bat: "Esnea eskatzeko egiten da behia jezteko keinua, edo pilotarena egiteko, bi eskuekin borobil antzeko bat, badaude bestetik lo egin edo jateko keinuak, oso tipikoak direnak eta betidanik egin direnekoak dira..."

Ikastaroak

"Iruñean lan egiten dudanez taldetxoa elkartzen dudanean, larunbat goiz bat hartu eta lasai-lasai prisarik gabe bi ordu t erdiko sesio bat egiten dugu; nondik datorren metodoa ikasiz edota lehenengo 100 keinuak ezagutzen". Umeak, nola ez, ongi etorriak dira.



Mentxuk webgune bat dauka non bere lana ikusgai dago:
www.cincodeditosen-navarra.com Nafarroa osotik mugitzen da, baita etxeetara ere, ordutegia moldatzen da.



“Exotikoak izateagatik deitu gintuzten”

**Esthertxo eta Ruben Basa-
buruarrek “Mihiluze” tele-
bista saioko sari handiena
irabazi dute**

Duela bost bat urte Ttikiena sortu zene-
neko lehenengo urtera joan behar
gara historia honen hasiera aurkit-
zeko. Guraso bilera batean hasi
ziren diru iturriei buruz pent-
satzen, nola dirua lortu ze-
zaketen... ideei horietako
bat Mihiluzera joatea
zen.”Ruben eta biok
gure burua eskaini ge-
nuen, eta gutun bat
idatzi genuen eta zein
izan zen gure sor-
presa deitu gintuz-
tela”. Hitz egiten
duena Berueteko Es-
ther da.

**Bigarren esperientzia,
beraz...**

Berehala deitu ziguten aurreko
aldi horretan, nik uste nafarrak, “exo-
tikoak” izanagatik deitu gintuztela, orain-
dik kuriositatea bezala gaituzte, nafarra eta
euskalduna izatea. Barregarriena kristo guztia jakinaren
gainean zegoela telebistan agertu behar ginela, denak adi-
adi zeuden ... eta barregarri geratu ginen, poltsikoa hutsik
itzuli ginelako. Baina nolakoak diren gauzak, orain hasi dira
ezer irabazi ez zuten jendea berriro deitzen eta deitu gin-
tuzten.

**Telebistan modu batean ikusten da guztia, baina ez da
errealitatezkoa, ezta?**

Saioko produkzio taldekoak maiz deitzen zaituzte,
eta 5 kamiseta eramateko esaten digute; 5 saio gra-
batuko ditugulako; egun osoa grabatzen pasatzen
duzu; goizeko 9etatik arratsaldeko 7etara. Oso egun
bizia izan zen. Astearen behin egiten duten lan berta-
koak. Ez dute grabazioan mozketak gehiegirik egiten,
noizbehinka geldialdi teknikoak egiten dituzte baka-
rik.



**Eta sari potoloa eraman zenu-
ten...**

Zorte handia izan ge-
nuen, poltsan bazegoen
dirua, eta froga horre-
tako galderak ez ge-
nekizkielako, logika
pixka batekin, Ru-
benek erantzuten
bat bazekien, nik
bakarra nekien, eta
hau eta beste, lortu
genuen saria...
13.000 euro haietan
ogasunak %20an mu-
turra sartzen du; 2.000
eurotik gorako saria bal-
din bada hasten dira kent-
zen. Pulunpe aldiakarian
agertze hau erabili nahi dut
dirua nola banatu dugun azaltzeko,
jendeak maiz galdetu egiten duelako:

bost urte pasa da eta norberaren egoera pert-
sonala aldatu da, diru kantitatea handia denez, banaketa
egin dugu; hiru zatitan banatu, eta horretako bat Ttikiena-
rentzat.

**Bitxikeria bat galdetu nahi dizut, Esther, sinatu behar izan
al zenuen holako paperen bat zuen “isiltasuna” bermat-
zeko?**

Begira, ez dago inolako kontraturik sinatzen, esaten dizute
mesedez ez esateko zer gertatu den oraindik emititu ez de-
lako, baina ez dira adibidez, “El conquis” bezalakoak, bertan,
parte-hartzaileek bai sinatzen dute. Gainera, alde batetik,
gure isiltasuna bazegoen bermatua, aurrekoan ez bezala,
orain ez dugu ezer esan, “top secret” izan da, batez ere au-
rrekoan gertatu zitzaiguna ikusita, baina asko harritu nau jen-
deak nola ikusten duen Mihiluze. Bestetik azpimarratu nahi
dut oso jende jatorra dela, oso ondo tratatu gintuzten eta pri-
meran pasatu genuen. Jendea animatuko nuke bertara joa-
tera.



ZER IKUSI

Emakumeak Plazan



Betidanik, herri-kiroletan, beste kirol guztietan bezala, gizonek osatu dute gehiengoa. Hala ere, aurreko garaietan ere izan ziren horretan aurreneko pausak ematera ausartu ziren emakumeak eta gaur egun ere baditugu, taldean edo bakarka, ingudean, txingetan, aizkora, sokatiran, harriak jasozen, arraunean, pilotan, edo idi-fogran aritzen diren emakumeak.

Dena dela, edozein kirol dela, partaideak emakumeak direnean, ez du jasotzen berdintasuna sustatzen duen edozein legeg exijitu beharko lukeen parekotasuna. Ez instituzioen laguntzen bidetik ezta komunikabideen laguntza eta zabalkuntzarenetik ere.

Egiten ari direna eta hain gutxi ezagutzen den hori ezagutarazi nahi izan dugu, emakumeak eta neska gaztetxoak kirola egitera animatuko ditugulakoan.

Idea eta zuzendaritza: Arantxa Gurmendi

Irudia, edizioa eta post-produkzioa: Julia Lantxas eta Gorka Arostegi

Ekoizlea: Lilaton Taldea.

Testua: Argia Multimedia.

MILA EGUZKI EDER

Khaled Hosseini

Khaled Hosseini afganiarra da, eta 1979ko sobietar inbasioaren ondoren (berak zortea izan zuen, bere aita diplomatikoa baitzen) Estatu Batuetan erbesteratu zen. Eleberri honen bidez bidaia batera eramaten gaitu Afganistanen barrena; nobelan, nabariak dira 30 urteko gerrate ilun, konbultsibo eta bukaezinetan dagoen bere herrialdeak eragiten dion nostalgia eta mina.

Argitaletxea: El Anden

Edizio urtea: 2007

Afganistani buruz luze eta zabal hitz egin da azken urte hauek. Ordu oro dago albistegiaren. Eta, gutxi gorabehera, badakigu herrialde horren egoeraren herri. Baina ezin gara errealitate hori bizi izaten duten pertsonen benetako egoeraz jabetu hara joan edo ordu batzuk hango biztanle baten larruan jartzen ez bagara. Horixe da eleberri honen aurkikuntza handia. Nobela edo lekukotza, berdindio. Nire ustez, narratzailea hain bizi izan da intentsuki eszenario konbultsibo horretan ezen ezin hobe ezagutzen baitu han bizi den eta legerik gabeko eremu-eremu hori sufritzen duen biztanle bakoitza, eta, benetakoak izan fikziozkoak izan, horietatik dira eleberraren protagonistak.

Mila eguzki eder liburuak bi neskato zorigaitzoren bizitza kontatzen du: ero herri batean bizi dira, non boterea eskuratzeko matxi-



Patxi M.L.

nadak egunerokoak izaten dira; potentzia handien interesak joan eta etorri aritzen dira bertakoen biziez arduratu gabe, pentsaezina den jokaerarik ankerrena erakutsiz. Testuinguru horretan bizi dira Mariam eta Laila, adinean eta jatorrian nolabaiteko aldea duten bi neskato dira, baina biak ala biak bizi-nahi berdinarekin, haien bizitzak tragikoki uztartuko dira. Pixkanaka, biziraupenak ikusarazi die Afganistanen ez dela erraza emakume izatea, eta haien biziak uste izaten baina gutxiago balio duela. Haien bizi jasanezinak are masakratuagoak izanen dira talibanak etortzean, eta egoera horretatik ihes egiteko irtenbide posible bakoitza putzu bat besterik ez da non behin eta berriz eroriko diren haien bizimodua aldatzeko aukerarik inimoena ere antzeman gabe. Amodioak bakarrik, benetako edo fikziozko maitasun baten sentimenduak emanen die oxigenoa haien bizitza penagarriak diren ibilbideak egiteko.

Soilik idazle on bat da gai izaki horien estualdi guztiak guri ikusarazi eta gogora ekartzeko, eta ohartarazteko zalantzarik gabe berez egoera txarra izanagatik ere beti okerrera joko duela erremediorik gabe. Fantasiatzko istorioa da, ezin hobeki kontaturiko gertakariez girotua, azken 30 urte hauetako Afganistanen historiaren lezio bat.

Ultzama aldeko gazteak euskaraz

ARDO FREXKOTIK



Ultzamako gazte talde batekin egoteko aukera izan nuen lehengo egun batean, eta gauza batek atentzioa eman zidan. Euskaraz mintzatzerakoan euskal azentua eta euskal doinua dutela. Oraindik ere euskarari eustez gain, euskal doinuari, Ultzama aldeko doinu ederrari atxikiak daudela. Hitz batez, euskal ezentuz eta doinuaz mintzatzen direla, hainbat tokitan gainbehera doazenean. Erdal azentu zurrin, monotono nardagarria sartzen ari zaigu zenbait hiztunen hizkeran. Egiaz, hizkuntzaren arimetako bat galtzen ari dira. Ultzamako gazteek, Ultzamako hizkeraren musikaltateari eusten diote oraindik. Musikari, musika gozoari eta, zergatik ez esan, kalitateari.

Eta hizkuntza batean mintzatzerakoan zenbateko inportantzia duen azentuak balekitez, zer edo zer gehiago eginen lukete zenbaitzuek.

Bertsolari bati, bertsoaren neurrian asmatzeko musika lagungarria zaion bezala, euskaraz mintzatzerakoan ere gure doinua eta gure azentua lagungarri izaten zaigu hizkuntza ongi josteko, euskal estruktura erabiltzeko. Gure azentua eta doinua galtzeak, euskal joskera galtzea dakar aunitzetan.

Gaurkoan, Ardo frexkotik sailera, lehengo egunean ezagutu nituen gazteak, Ultzamako gazteak dakartzat hona. Tartean baziren Atezko, Odietako, Anueko eta baita Olaibarkoak ere. Zuek zarete gaurko protagonistak.



Ultzamaldeko gazteria Lizason, Korrika aurrean egingako afari batean.

Ardo frexkotik edanez Ardo frexkotik edan beharko eztarria leuntzeko

Gaurkoan ere *Arotzan* Miel dakart hizpidera. *Arotzan etxea* esaten diogu bere sortetxeari, arotza izan baitzuen aitona. *Arotza*, burdin gauzak egiten zituen, alegia, gehienbat nekazalgoko gauzak. Arotzak horretarako zeuden eta gainera uztarriko azienda perratze, izan idi izan behi. Arotzaren etxeko behegian *aroztegia* izaten zuten. Eta aroztegian **sutegia**, gela batean. Eta *Sutegian*, ikatzez sua egin eta burdina goritzeko erabiltzen zuten labea. Hor ikasi nuen lehen aldiz sutebietako eta aroztegiatiko konturen bat. Oso txikia nintzen artean, 5-6 urtekoa. *Sutegia*, hitz magikoa zen niretzat eta ez gutxiago bertan zituzten tresneri guzia: tenazak, **sumatsak** eta gainerakoak. Eta *hauspoa*! Ikaragarri handia. Eta tresna hitz guzietan, harrigarriena, **txinguria** bere forma arraroarekin.

Bost urtetan hitz multxoia neureganatu nuen: *arotza*, *aroztegia*, *sutegia*, *txinguria*...; eta arrunt ezezaguna nuen bizibide baten arrastoak ikusi nituen. Ordura arte ezezaguna, gure etxean ez baitzen ez sutegetirik eta ez txinguririk. Eta hauspoa, zeinen handia zen!

Baina deigarriena hitz horien musika zen. Garai hartan berean ikasi izanen nion Mieli arotza hitza ere. *Arotza* eta *Arrotza*, harri-garriak; hizkuntzaren xarma dastatu nuen lehen aldiz, edo hobeki

esan, bigarren aldiz, eta nire oroimenean txertatu zitzaizkidan bertiko. Mugarri bat izan ziren niretzat, bost urtetan bizitzara saltoa izan zen, beste mundu baterako jauzia, eta batez ere hizkuntzaren xarma berezira, mutikoen mundura eta hizkuntzara.

Geroago ikusiko nuen aipatu dugun aitona Aroztegui zuela deitura. Deitura aproposagorik ez zezakeen izan Mielen aitona, arotza zenak, alegia. Eta, oraindik urte askoz geroago, *txinguria* burdina forjatzeaz gain, beste gauza baterako ere bazela, bizkarrera goratzeko, indarrak neurtzeko mutilen artean, alegia. Baina hori gure herrian ez genuen ezagutu. Askoz ere geroagoko kontuak dira hauek, Basaburuan lanean hasi ondorengoak, alegia.

Gaurkoz aski izanen dugu, sutegetiko bero zakarra eta hezetasuna utzi beharko ditugu, eztarria erabat lehortu didate, eta bertako hautsak lastu ere bai. Zintzurra leundu eta guritu beharrean gaude. Hizkuntzaren ardo gozoari ez-ezik, ostatuko ardo frexkoari ere heldu beharko diogu. Miel, goazen ostatura, ardo berri-berria ekarri ditek eta!



Hiztegia

Sutegia: Fragua
Sumatsa. Tenaza handiak.
Txinguria: Ingudea. Yunque

Basurdea

Ikus ditzagun animali ezagun honen zenbait bitxikeria:

- Bere izen zientifikoa Sus Scrofa da.
- Taldeak matriarkalak izan ohi dira; oso animalia soziala da, ez da eremu bakarrekoa, eme handi eta zaharrena da taldeko burua.
- Gauetan mugitu egiten da; 2 eta 14 kilometro artean egin ditzake.
- Zerriek oso erraz bihurtzen dira basati, eta hau gertatu egiten denean, animali talde hauek basurde antza azkar hartzen dute.
- Hortzak garbitzeko eskuilak egiten ziren basurde ileekin. 1930eko urteak arte egiten ziren; gero zuntz sintetikoek baztertu zuten ilea.
- Animali hauek badituzte bere harrapariak ere; bere garaian otsoa zen nagusienetako bat. Mundu guztian



Bertako animaliak

hedatua dagoenez, tigreen bazkari ere izan ohi dira.

-Oso animali "zaharra" da, gogora dezagun kobazuloetan aurkitutako margoetan jada agertzen direla bere marrazkiak.

-Harrak taldetik kanpo, modu periferikoan bizi dira; gainera zenbait har zahar bakarrik bizi dira "ezkutari" baten laguntzaz; har gazteago bat. Laguntzaile hau beti aurretik sartuko da arriskuko lekuetara.

-Ez da arraro 10 urte baino gehiago bizitzea.

-Ikusmen txarra, usaimen bikaina; trufak eta etsaiak 100 metrora usain ditzakete.

-Bi subespezie aurki daitezke iberiar penintsulan: Sus scrofa castilianus, eta Sus scrofa Baeticus. Castilianus hau handiagoa izan ohi da, baina letaginak txikiagoak ditu, iberiar penintsulako iparraldean aurkitzen da gehiago eta ilea argiagoa da. Baeticus, aldiz, txikiagoa, letagin handiagoak ditu eta hegoaldean bizi da.

TXIKIAK HANDI

JAUNT SARATZ ESKOLAKO ELURTEA

Jauntzaratz eskolako, 2. mailako ikasleak gara
eta azalduk dituzte 2013 otsailaren 26an
asteartean eskolan pasatu zena. Eguna

orretan -- zentimetro egon ziren.

Egunera 85 etortzen ziren

baina 37 pertsona etorri ziren:



UNAL OIER ETXARRI.
HODEI ETA AINGERU



hemen hor han

Ikusi dut hainbat herritarrek etxean egiten dutela konposta eta, esan didate, eskatuz gero, Iruñerriko Mankomunitateak konpostatzeko edukiontzi bat ematen dizula.

Nik ere eska dezaket bat? (Edurne)

Noski baietz, gainera laster, urteroko konpostatze-kanpaina jarriko da abian. Hori bai, orain komentatuko dizudan zenbait puntu hartu behar dituzu kontuan.

Iruñerriko Mankomunitateak urtero antolatzen ditu konpostatzeko kanpainak udaberrian, eta, bere bizilekuan konpost egin nahi duen edozein familiari konpostatzeko edukiontziak banatzen dizkio.

Kanpaina hauetan parte hartzeko hiru baldintza bete behar dira:

- Mankomunitate eremukoa izatea.
- Gutxieneko 50 m²ko berdegunea (baratza edota lorategia) izatea.
- Lehen etxebizitza izatea (konpostatzeko edukiontzia izanen duena).

Hiru baldintza hauek betez gero partehartzaileei konpostatzeko edukiontzia banatzen zaie. Azpimarratu nahi dizut, edukiontzia jaso aurretik, honen erabilerari buruzko hitzaldi edo ikastaro bat jasoko duzula.

Kanpaina honetan izena emateko, bi aukera daukazu:

- Mankomunitatearen web orriaren bitartez egin dezakezu, **www.mcp.es**, eta, hondakinen atalean, "etxean konpostatzea" saillean.

- Herritarrentzat arreta eskaintzen duen 948 42 32 42 telefono zenbakira deituz eta eskatzen den informazioa emanez.

Kasu! Izena ematea urtean zehar egin daiteke, baina konpostatzeko edukiontziak udaberrian bakarrik banatzen dira.

Esker mila zuen parte hartzeagatik!!!

Aurreko zenbakian esan zenuten beira-ontziak beira-edukiontzian utzi behar zirela, botilak bezelaxe. Baina, eta ontzi horien estalkiak? Zein edukiontzitan botako ditugu? (Virginia)

Edukiontzi horian utziko ditugu, ontzien edukiontzian. Beira-ontzien estalkiak metalezkoak izaten dira, edukiontzi honetatik Gongorako birziklatze instalaziora iristen dira, eta han, bereizgailu magnetikoen bitartez baztertzen dira, ondoren, elementu metaliko bezala kudeatzeko.

Galdetu, galdetu...
pulunpe@gmail.com

Urrunera joan gabe

LARANJA

Azoka eta dendetan udazkenean agertzen bada ere, negua da bere sasoia, orduan izaten baitu bere zapore eta gozotasunik onena.

C Bitamina kopuru handian dauka, eta horixe da bere ezau-garri nagusia. Bi laranja egunean nahikoa da egunero behar dugun C bitaminaren beharra asetzeko. Hala ere, badauka beste bitamina batzuk ere, hala nola, B1, azido folikoa, karotenoa, eta mineralak: potasioa, kaltzioa eta magnesioa. Azukre gutxi duenez, diabetikoek ere jaten ahal duten zapore handiko fruta da.



koak.

Flabonoideak: ez diote uzten kolesterolari arterien paretetan pilatzen eta arteriak gogortzea eta estutzea saihesten dute.

Hori dela eta, egunero jatea gomendatzen da, bai pertsona osasuntsuek bai gaixoei; hala ere, bereziki gomendagarria da honako gaixotasun hauetan: beheakoa, kolitisa, azaleko ekzema, harriak besikulan, eta koloneko minbizia. Horretaz gain, diabetikoek hoberen onartzen duten fruta da.

C BITAMINA

Udazkenean eta neguan birus eta bakterio frankok erasotzen dute gure organismoa. Gure sistema immunitarioaren egoera nolakoa halakoa izanen da harapatuko ditugun katarro eta gripeen kopurua eta horiek arinagoak izatea. Dударik gabe, elikadurak funtsezko eragina dauka gure defentsak indartzeko eta elikagai garrantzitsuenetako bat C bitamina da.

C bitamina edo azido askorbikoa uran disolbatzen den bitamina da; hau da, gure gorputzan ez da pilatzen. Gure gorputzak ezin du bitamina hori sintetizatu; horregatik, egunero hartu behar dugu, eta, azken ikerketa zientifikoaren arioren, prebenitzez gain, katarroak eta gripeak azkarrago sendatzen laguntzen du.

Horretaz gain, erradikal askoen kontra eragiten duen antioxidatzaile indartsua da, eta zenbait substantzia toxikoen eragina deuseztatzen duen antitoxikoa. Kolagena sortzen laguntzen du, hezurak eta hortzak sendotzen ditu, arterien paretak indartu eta burdina xurgatzen laguntzen du.

Kalkuluen arioren, egunean 60mgr inguru behar dugu.

Azido askorbiko gehien duten elikagaiak dira frutak (zitrikoak, andere-mahats beltza, papaia, marrubia eta kiwia) eta barazkiak (perrexila, piperrak, Brusela azak, brokolia, berroa eta azalorea).

SAGARRA


Sagarra fruten erregina da, bai gure osasunerako ekartzen dituen onurengatik bai sukaldean ematen dituen aukerengatik, oso modu desberdinez prestatuta hartzeko aukera ematen baitigu.

Eramaten dituen bitaminen artean C eta E dira nabarmentzekoak, eta mineralen artean potasioa eta burdina. Hala ere, sagarraz esaten diren propietate terapeutiko apartak dira dituen elementu fotokimiko eta antioxidatzaileen ondorioa, besteak beste:

Pektina: zuntz disolbaezina da ura eta hesteko hondarren substantzia batzuk atxikitzen dituen; beraz, gorozkiekin batera toxinak kanporatzeko lagungarria da.

Azido organikoak: odolean eta ehunetan eragin alkalinizatzailea dute. Gainera, heste-flora berritzen du eta hesteetako hartzidurak saihesten ditu.

Taninoak: lehorgarriak dira eta hanturaren aurka-



zortunaak

Maite



LUIS MARI



IBAI



FLOREN



ALBA 73



GURUTZE



LAURA



MARIVI



UR



IMANOL



ANDER



PULUNPE@9mail.COM

BAKARTXO ETA ESTHER



Ernio mendiko gurutzearen historio arraroa



Hilabete honetako aldizkaria ixteko pasadizo bitxi batekin gatoz. Alde batetik Ilarregiko koadrila mendizale bat, metalzeko gurutze zahar bat bestetik, eta bukatzeko Gipuzkoako mendi “magiko” bat. Errezeta hau ulertzeko beharrezkoa da irakurtzen jarraitzea. Kontuz, hala ere, irakurle maite, bertan aurkituko duzuna baliteke beldurgarria izatea...
Hurrengo hilabetera arte!

Lasai-lasai zebilen Jesus Eskurra bere eguneroko lanetan. Bapatean; tipo batzuk hurbildu eta hurrengo esan zioten; begira, Gipuzkoatik gatoz, eta Ernio mendian aurkitu genuen gurutze batean, ultzamako jendearen eskuizkribu bat aurkitu genuen. Bilatzen gaude gurutze hori jarri zutenak.

1999. urtean mendigoizale talde batek “Ultzamako jendea jaungoikoari” jartzen zuen metalzeko gurutze bat jarri zuten mendi horretan. Arrazoa? mendi horren puntan ehun bat gurutze daudelako, eta koadrila honen txango-etako batean harrituak geratu zirela hainbeste ikusita. Ondo pentsatzen ari zarenez, Jesus Ezkurra mendigoizale horietako bat zen, eta sekulako sorpresa eraman zuen gizon talde hura bere etxean agertzean. Bere poztasun eta bitxikeria



jende gehiagorekin elkarbanatzea erabaki zuen eta ez zen gelditu Pulunpeko kazetariarekin hitz egin arte. “Gure gurutzeak historio polit bat du atzean; herrementari bati eskatu eta bertako langile batek besteei ezer esan gabe lan orduetatik

kanpo egin zuen enkargoa. Gurutzea prest zegoenen bere bila joan eta aurkitu genuen dohainik egin zigula gurutzea”. Oraindik ez dakite zergatik izan zen horrela, baina izan zen. Itzul gaitezen orain Ernio mendira. Urtero egiten da bere puntara milaka pertsona elkartzen dituen erromeriak. Mendiaren maldan jarri dira mendeetan zehar hamarnaka gu-

rutze; herri eta jende talde ezberdinek jarriak. Erromeria hauen bukaeran jendeak uztaila arraro batzuk pasatzen ditu gorputzetik, gaixotasun ezberdinak kentzen dituela pentsatuz: “Burutik sartu eta mugimendu borobil batzuk eginda oinetaraino pasatzen dute uztaila”. Praktika arraro hauek ehundaka urtez egin dira. Erreuma eta hezurretako mina kentzen omen ditu. Hala ere, azken urteetan jendeak ahoan irrifarre bat duelarik egiten omen ditu, mendi honetan egiten diren erromeria hauei buruz egindako ikertzailea den Homobono Martinezek azpimarratzen duen bezala.





Beraz, badakigu ultzamar talde honek mendi "famatu" horretan zergatik jarri zuten gurutzea, eta beste gipuzkoar horiek bertan ikusi eta hauen bila joan zirela. Historio hau biribiltzeko jakin behar duzue Ernio mendiak oraindik badituela zenbait bitxi-

keria gehiago: Aurretik komentatutako ikertzaile honek egindako lanean, egiten diren erronomia horien bitxikeriak azpimarratzen ditu; bertara ez zelaa inolako apaizik joaten, baizik eta emakume bat joaten zela bidea irekitzen. Mendi puntara ailegatzerakoan, jendeak emakume horri zeozer ordaindu behar zion. Bestetik, mendi honetan kristautasuna baino lehen, jentilak bizi homen zirela diote kondairek. Erronomia "paganoak" euskal mendi magiko batean. Hala ere, zein mendik ez du bere magia? Oraindik ere geratzen da beste bitxikeriren bat kontatzeko; duela urte gutxi batzuk arte bertan Saturnino Iztueta artzaia bizi zen, urte guztian zehar borda batean bizi zena, betiko artzaiak bezala. Indar gehiagorik izan ez zuen arte bertan bizi izan zen; bizimodu, kondaira eta ardien konpañian...

Hurrengorarte!



euskaraz
bizi
nahi dut





DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL.: 678 623866

argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ



PUBLIZTATEA BEHAR DUZU?
HEMEN LEKUA DUZU
pulunpe@gmail.com
649676764



TEILA FRANTZESA

eta teilatuentzako sistemak



les tuiles
DISTRIBUCION S.L.

948 123 713

info@lestuiles.es

www.lestuiles.es

BERMEAK



**Teilatua berria edo teilatua
aldatzeko beharrian zaude?**